

**5. MAHASGINTZA ETA ENOLOGIA BOLETINA / 2021eko ABUZTUA
IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK**

- **Internet bidezko asteroko oharrak :**
http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5505&Idioma=EU
 - **Erantzungailu automatikoaren bidezko asteroko oharrak (Maiatzaren lehen astetik aurrera): 94-4066879**
 - **Mahasgintza eta enologia boletina.**
 - **SMS mezuak egoera berezietarako (gorrinaren lehen mailako infekzioa, lehen orbanaren topaketa, txingorra...).**
- EDOZEIN KONTSULTARAKO DEITU DERIOKO LANDARE BABESERAKO ZENTRURA: 94-4541009**

Abuztuak 4ean

GORRINA: aurten ta orokorrean gorrinak sortutako kalteak ez dira larriak izan. Dana dala, gogoratu, nabardura arte mordo gorrinarekiko sentikorra dala ta horregaitik landaketak miatu behar dira, ta beharrezkoak diren tratamenduak egin.

Kontrola: mordo gorrinarekin nabardura hasi arte 2021eko Tratamendu Gidako **M2 taldeko** fungizida sarkorrek erabiltzea gomendatzen da. **Mordoak** heltzen hasten direnetik aurrera (nabardura) ez dira sentikorrek gaixotasunarekiko, beraz sasoi honetatik aurrera kobrea daramaten **M3 taldeko** ukipen fungizidak erabiltzea gomendatzen da.

Landarearen organoak ondo busti beharko dira makineria egokia eta ondo kalibratua erabiliz. Bestalde, oso garrantzitsua da praktika kultural egokiak egitea (kimuak kendu, desnieteak, belar mozketak...) landareen inguruan hezetasun altuko kondizioak ekiditeko.

OIDIOA/ ZURINA: orokorrean aurten zurinaren eragina be ez da handia izan nahiz eta landaketa askotan sintomak izan. Tratamendua egiterakoan 2021eko Tratamendu Gidako **O taldeko** oidioaren kontrako fungizidak erabili.

Gorrinaren kasuan lez, mordoak heltzen hasten direnetik aurrera (nabardura), ez dira sentikorrek gaixotasunarekiko, beraz, sasoi honetatik aurrera ez egin zurinaren kontrako tratamenduak.

BOTRITISA: mordoak heltzen hasten danetik aurrera (nabardura), arriskua gora egiten dau batez be euria edota hezetasun altuko kondizioak badira. Erabili 2021eko Tratamendu Gidako **B taldeko** botritisaren kontrako fungizidak gai aktibo ezberdinak tartekatuz.

EGURREKO ONDDOAK: sasoi honetan landare batzuk gaixotasun honen sintomak agertu dabez. Kasu hauetan galdutako landareak kendu eta atera landaketatik eta markatu sintomak dekietzenak neguan tratateko.

MORDOAREN SITSIA: Gure mahastietan ez da arazo handirik insekto honegaz, horregaitik gomendatzen da tratamendua egitea, larbak mordoetan ikusten badira bakarrik.

DROSOPHILA SUZUKII EULIA: beste urte batzuetan euli honen atakearen sintomak mordoetan ikusi dira, baina oindino kalteak direnik ezin esan. Adi nabarduratik aurrera, eta batez ere batuketa gertu danean izurrite honek egin leikezan kalteaz. Zentzu honetan be, gogoratu eginiko zauriek botritisaren atakea areagotu leikiela.

LANDAKETA LANAK. Bedarra sarri ebagiteaz aparte, mordo inguruan dagozan hostoak kendu, kontutan izanda eguzki kolpeak mordoetan sortu leiken kaltea.

HOSTOEN ANALISIAK:

Muestrak erroteko data: abuztuak 30 etik irailak 3 arte.

Lekua: Neiker Derio

Ordutegia: 8,30-14.00

Prezioa analisisiko Bialtxa: 46,38 € + BEZ

Prezioa analisisiko (bazkidea ez dana) : 66.25 € + BEZ



- Peziolodun hostoa.
 - 3-garren hostoa lehen mordotik gora.
 - Bildu 30-60 hosto muestra eta bariedade bakoitzeko.
- Landare bakoitzeko hosto bat hartu.